

Euskal Herritik ESPAINOLA IZAN NAHI EZ DUEN ga-
Joxe Azurmendi legoak, katalanak, euskal herrita-
rrak, zerbait nahi du ez izan, eta zer-
bait nahi du izan. Zer ez du nahi
zehazki, eta zergatik.

Espainia errealitate bat edo ideia bat izan liteke –erreali-
tate batzuk eta ideia batzuk, hobeto esanda, diferenteak–.
Orain Espainia demokrazia da, eta errealitatea: milaka pre-
so eta iheslari, torturatuak, behin eta berriro torturatuak
(eta torturen uko zinikoak gobernuen aldetik, eta torturak
salatzen dituztenei mehatxuak). Eta autonomia bat azpia
janda, airean txorimalo. Gobernua legeak tresna politiko
bezala ematen eta baliatzen. Justizia bat erridikuluraino po-
litzatua. Prentsa eta komunikabideak itsu kolaborazionis-
tak, Barne ministroaren intelektual komando bereziaren
fandango akademikoak, tertulianoen negozio erraza ahobe-
rokeria eta burlaren kontura. Espainia ere, ordea, aldatu
egiten da historian. Lehenago errealitatea beste bat zen:
Franco zegoen, eta milaka preso eta iheslari, torturatuak,
eta prentsa eta komunikabideak orduan ere *collabo* totalak,
Justizia politikaren esku-makila, etab. Eta lehenago, gerra:
milaka preso eta iheslari, zangetan fusilatuak, torturatuak...

Beranduena karlistadan hasi eta, berrehun urte ingurutsu, Espainiaren errealitatea Euskal Herrian beti horixe da. Litzentzi bedi zertxobait esajeratzea, esajerazio denak gutxi direnean errealitatearen aldean.

Idea bezala ere gauza diferenteak izan liteke Espainia. Inperio unibertsal handiengan Euskal Herria partaide izatera jaso zuena izan liteke, non ere eguzkia inoiz ez baitzen etzaten. Espainia horri Euskal Herriak heroiak eman dizkio—Elkano, Okendo— “vascos universales”. Izan liteke Euskal Herria zibilizatu duena, kultura eman diguna, baso zuloetatik atera eta progresoaren historian munduan sarrarazi gaituena, etab. Sozialistek hori predikatu izan dute. Modernoak eta prestuak izateko Espainiarekin batbatu eta hura maitatu behar dugu. Beste ideia ez oso diferente baten arabera, Espainia Euskal Herria kristautu duena da; beti ere katolizismoaren bastioia; ideia moderno protestante edo frantses galgarrietatik babesa, etab. Euskal Herria Espainiari santuak eta misiolariak eman dizkiona da.

Hala, bada, diferenteak egon litezke espainola izan ala ez izateko nahiak ere, beti ez da termino berdinetan planteatu. Batzuen esanean Euskal Herriak espainola izan behar du: Historia eta Errege Katolikoengatik behin, bestean progresoagatik edo klase borrokaren batasunagatik, hurrengoan erlijio santuagatik. Denboran zehar Espainia eta espainolismoaren teologia diferenteak daude. Katoliko debotoa baitzen, Lauzirika gotzainak honela ebanjelizatzen zituen eskola-ume euskaldunak: “Escolares: amad a España y amaréis a Dios, y España os dará la felicidad en la tierra, y Nuestro Señor la gloria en el Reino de los Cielos”. Batere debotoa ez baitzen, Gimenez Caballero falangistak honelaxe ebanjelizatu ditu: “¡Escuchad bien esto y para siempre niños españoles!: el que de vosotros olvide la lengua española o la cambie por otra dejará de ser español y cristiano, ¡por traición contra España y pecado contra Dios! Y tendrá que escapar de

España. Y cuando muera, su alma traidora jirá al infierno!”. Orain azkeneko dogma Konstituzioa da eta patriotismo konstituzionala teologia berriena.

Alderantziz ere berdin da. Karlistentzat Euskal Herria foruen herria zen; Arana Goirirentzat Euzkadi euskal arraza/nazioa zen; Espainia bat foruen ukoa zen, bestea euskal nazioa berarena. Total, dirudienez, espainola ez bazara, infernura joango zara; eta espainola bazara, infernua zaude.

Eta gaur?

Baina noiz hasten da eta bukatzen da gaurra? Puntu honetan posmodernia zorioneko hori ezin ailegatu dela, ematen baitu (Botereak bere kategoria propioetan funtzionatzen du). Mendeetan, arazoak nahikoa egon dira, baina espainolak izan ala ez izan, ez da izan problema. Nafarroa, konkistatua ere, printzipioz erresuma berezkoa gelditu da. Modernian bai, printzipiozko problema da. Multikulturalismoa-eta, kontu asko; baina Estatu moderno ferborezkoan denak eta dena “Bat” izan beharra dago. Karlitek, liberal foruzaleek, eta besteren batzuek (Baroja-eta), aldi berean espainolak izan eta ez-izan nahi zuten. Haien pot eta porrota ezkerro, ala zeharo bai ala zeharo ez beste hauturik ez da gelditu.

Jazarpenak eta burlak sentimenduak indartzen dituzte. Gogoratzen ditut gerra ostean, koadrilan bakarrik hitz egin zitekeenean politikaz, isil-misilka ibiltzen ziren arrazoiak: aberria gurutziltzatua dago, ama euskara hiltzorian; eta historiako liburu klandestinoak pasatzen ziren eskurik esku. Harrezkero Zidakosek ur asko eraman du makaldi eta baratze artean. Irakurtzera doan liburuan irakurleak hauteman-go duen legez, jarrera antiespainolista hartan gerraondoko belaualdi gazteek hiru eratako antzaldaketa errotikoa gauzatu dute. Planteamoldea, maila pertsonaletik sozialera pasarazi dute; maila sentimentaletik –esanahirik positiboenean ulertu, mesedez- razionalitate politiko global batera; eta his-

toria edo iraganetik, etorkizunera; abertzaletasuna gizarte berri baten proiektu eta helburu bihurtzera alegia.

Historiaren garrantzia inork ez du ukatzen, funts-funtsezkoa da: azken batean, pertsonentzat bezala herrientzat, identitatearen erdia memoria da (beste erdia proiektua!). Sentimenduak ere ezin dira gutxietsi: *pathos* bat dago beti *logos*-aren aurretik. Arazoa ez da matematikoa eta erantzun definitibo bat ez dago: belaunaldi bakoitzak eta pertsona bakoitzak bere-berea duen esperientziatik –sentimendu, historia– hartu beharko dizu erabakia etorkizunaren aurrean.

Bere kontzientzian. Izan ere, sentimenduak eta historia aparte, alde batera ala bestera erabaki, balio eskala diferentek hautatzen dira. Espainola izan nahi duenak bezala izan nahi ez duenak, razionalitate mailan, gizarte eta mundu modu baten eta etorkizun modu baten alde erabakitzen du. Gaur Euskal Herriaren aldeko hautuak esan gura du gutxiengo baztertuen alde; Estatuaren biktimen alde; zapalduen, ahulen eta pobreen alde; herrien alde; ekologia sozialaren alde erabakitzen dela, h. d., mundu modu oso baten alde eta mundu modu oso baten aurka. Historia modu baten aurka, Estatu unitarioaren mitoaren aurka. Espainola izan gura ez duen euskal herritar, katalan, galegoak, ez dio arte edo literatura espainolaren ederrari muzin egiten. Maite ditu. Estasiatzen da Gaztelako paisajeetan. Berak higuin duena Estatua da. “Un Estado-cárcel, en el que siempre vencieron los mismos espadones, las mismas clases, los mismos reyes, los mismos obispos (...). Y basta de considerar a los pueblos como propiedad de los Estados, en lugar de considerar al Estado como un instrumento al servicio de los pueblos, modificable y remodelable según las aspiraciones humanas”.